

ttipi-ttapa

1992.eko Martxoak 19

82. zenbakia

dohain banatzen da



**NEKAZARI HELDUENDAKO
IKASTAROAK ARRAKASTATSU**

MOLINO

OINETAKOAK

☞ Zure oina zabala edo problematikoa bada, neurrira egindako oinetakoak baina hobeak aurkituko dituzu, moda modakoak

Pº Colon 29, ☎ 943-611266 - IRUN



PIKABEA

Udaberri-Uda kolekzio berria

Gazte eta emakumeendako arropak

Osagarriak

Mayor 5, ☎ 45 02 07 - DONEZTEBE



VOLKSWAGEN - AUDI
ZERBITZU OFIZIALA



Sampi Aragón



Tfnoa: 45 03 54
DONEZTEBE

Tfnoa: 58 05 93
ELIZONDO

■ **GOLF BERRIA** ■

non - zer

-
- 4** **AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7** **HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8** **IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/23** **HERRIZ HERRI**
 Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarana, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 24** **ERREPORTAIA:** "Irailetik hasita abelzantzari buruzko kurtsuak burutzen ari dira Mugairiko San Martin eskolan", eskualdeko 50 lagunetik goiti bilduz.
 Aitor Arozena
-
- 26** **ELKARRIZKETA:** Zubietako Iñotik: "Heldu den urtean haundiagoak ikusteko prest etor daittezela".
 Juainas
-
- 28** **KIROLAK:** "Beti Gazte - Sicesal bigarren mailako afizionatuen txirrindulari taldea aurkeztu zen".
-
- 30** **MERKATU TTIKIA**
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
 Tirada: 5.000 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
 31780 BERA
 Tfnoa.: 63 11 88
 Faxa: 63 12 91

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karnele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txopereña, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton Erkizia, Juana Mari, Patxi Petrirena, Olhain Elkartea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldia Argazkiak, Mattari, Fermin Altzuguren eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritzak.... **Inprimategia:** Gertu Kooperatiba Elkartea (Oñati)
ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren450183

Sunbilla.....450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600

Nafarroako ospitalea102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia109400

Gurutze Gorria.....226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzaran515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

W Botikak

► **Martxoaren 21-22an**, Arantza, Narbar-te eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Martxoaren 28-29an** Lesaka, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).

W Dantzaldiak

► **LESAKA**, martxoaren 22an ARKAITZ taldearekin.

► **LESAKA**, martxoaren 29an EGAN taldearekin.

W Hitzaldiak

► **ELIZONDO**, martxoaren 20an, arratseko

8etan, Margaretta Makintosh antropologak, Ameriketako kultur indigenei buruz arituko da, bideoaz lagundua, Arizkunenean.

W Erakusketak

AEK - JIRA

► **ELIZONDO**, martxoaren 23tik 29ra, arratsaldeko 7etatik 9etara, Arizkunenean.

W Deialdiak

► **LESAKA**, martxoaren 26an, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Aholkularitza Batzordearen bilera.

W Ikastaroak**SOZIOLINGUISTIKA**

► **LEITZA**, martxoaren 20an, "Un futuro para nuestro pasado" teoriaren sarkontzea. 24ean, "Hizkuntza biziberritzeko J. F-en eredia eta etnolinguistikazko bizitasuna" J. Urdangarinek emana. 25ean, "Euskar. egoera zonaldean eta ikerketa matematikoa" E. Zerbitzua eta Txillardegik. 27an, "Soziolinguistika aplikatua" EKBk eta 1ean "E. Talde eragileak" AED-Galtzaundik emana.

W Bota bertsoa**Aitor TEILETXEA**

(Bortzirietako Bertso eskolako)

Gaia: Nafarroako Bertsolari Txapelketa**Doinua:** Arratsaldeon lehen-dabizitik

Aurtengun ere martxan daukagu Nafarroko txapelketa eta jendeak hori dela ta beltza ez dauka kopeta Jendeari gauz bat diot nik orain zuek jarriaz arreta Aurtengun denak animatzera pena merezi du eta (bis).

Burrukan hasi bertsolariak enbido eta ordago Aurtengo hontan bertsolariak lenguan baino gehiago hirukote bat oso gaztea hori ez gendun lehenago beraz aurtengun txapelketa hau hutsegiterik ez dago (bis).

AGENDA

Kontzertuak

► **ERRATZU**, martxoaren 21ean, La Polla Records eta Beltzez, Xorroxin, Erratzuko gazteek eta Baztango Beltzek antolatuta.

Zinemak

► **DONEZTEBE**
Martxoaren 21-22an, "Buscando justicia".

Martxoaren 28-29an, "Robin Hood".

► **LEITZA**
Martxoaren 20ean, gaueko 10,30etan "Orquidea salvaje".

Martxoaren 22an, arratsaldeko 4,30etan eta 7,30etan "El robo de la joya".

Martxoaren 27an, 10,30etan, "El rey pasmado".

Martxoaren 29an, arratsaldeko 4,30etan "Robocop" eta 7,30etan "El rey pasmado".

Gastronomia

GAZTANBERA

Osagaiak 4 lagunendako:

Litro bat ardi esne eta 6 harri.

Harriak sutan gorritzen paratu. Ontzi batean esnea berotzen paratu. Harriak gorri-gorriak daudenean, hiru ontzi batera ateri eta esne pixkat bota. Trapu bat



Mª Jesus Indak emana
NARBARTEKO Herriko Ostatua

gainetik jarri ontzia tapatuz, beroak denbora gehia-

go irauteko. Ondoren gainerako esnea bota, baita geratzen zaizkigun harriak ere irakiteko. Irakin ondoren esnea bertze ontzi batetara gasa batekin pasa eta hortan hoztera utzi. Arras hoztu gabe, epela dagoelarik, ontzi indibidualan edo soperan batetara pasa eta gatzagia bota, ttikietan kafe kutxarila erdika bat eta soperan kutxare haundi bat. Nahasi eta utzi erabat hoztu arte.

Baserriko feria

► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 7.200 pzta. **Zerri gizona** (95-100):187 pzta/kilo **Zerramak**: 95 -115 pzta./kilo bizirik.

► BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra.....520
1.koa.....480
2.koa.....450

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal
Extra.....520
1.koa.....480
2.koa.....440
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 320 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pzta /Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):
Nabarrak: urruxak 12.000 eta idixkoak 22.000 Pzta.
Mestizoak: urruxak 24.000 eta idixkoak 33.000 pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.
FUNERARIA ZERBITZUAK

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

❖ Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoaz garbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz!

Tfnoa: (948) 63 01 55

BERA
DESINFECCIONES

- BERA

D
Diversey

Europako lehena
ostalaritzarako
garbiketa produktuetan
Tfnoa: (948) 63 01 55 **BERA**



11 galdera Ilabur



► **Jesus Mª Calvo**
Lesakako korrikalaria

- **Krossa ala pistako laisterketak?** Politagoa krossa, baina atleten kategoria pistan erakusten da.
- **Laisterka, bandeja ala bandejarik gabe?** Bandejarekin ere polita da, baina zailagoa.
- **Laister egin ala dendan lan egin?** Laisterka egin.
- **Kirola egiteko, barazkiak ala haragia?** Denetarik pixko bat behar da.
- **Jendea dendara ala dendaria jendearengana?** Jendea dendara.
- **Iñauteriak ala Sanferminak?** Nerezako Iñauteriak.
- **Bakarka, bikoteka ala taldeka moztu?** Bakarka behinpin ez.
- **Mairuz jantzi ala zakuzaharrez ateri?** Zakuzaharrez ateri.
- **Iñauterietan, antzerkia ala juerga?** Juerga, noski.
- **Mozorrazteko, gonak ala galtzak?** Gonak.
- **Iñauterietan, etxean ala jatetxean bazkaldu?** Egun bat etxean, baina beretzak ostatuan.

Zinema

► Vacas

Julio Medem
1992 Euskadi



Azkeneko urteotan Euskal Herrian egin den luzemetrai bakarrenetariko bat dugu hauex. Zuzendari berri honen lehendik laburmetrairen batzu eginak baditu ere, filma hau da bere lehen luzemetraia.

Baztan aldean (Erratzun eta Beartzunen) errodatu zuten pelikula eta istorioari dagokionez, hiru belaunalditan zehar (bigarren karlistadatik hasi eta gerra zibila bitarte) auzo bereko bi familiren arteko ezin iku-

siak eta bizipenak kontatzen dira, belaunaldi guzi horien arteko lotura modura behiak erabiltzen direlarik.

Nolanahi ere, pelikula hau ez da inola ere orain arte euskal filmagintzan egin diren pelikulen maila berean sartzen ahal. Beharbada Madril-

go movida-ren anteoju modernuekin begiratu-ta bakarrik uler daiteke Baztango baserriarren eguneroko zerak Madril-en hitz egiten duten espainol estilorik propioenean solasten entzutea. Bertalalde, baserri giroaz ematen den ikuspegia hiritar batek izan

lezakeena da azken finean. Izan ere badira zenbait detaile pelikula osoa traizionatzen dutenak.

Zerbait salbatzekotan, fotografia. Beraz, ezin erran momentuz euskal pelikulagintza berpizten ari denik.

JOXE

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA



trebeki

jostailuak - eskulanak

Sebastian Errazu 1(943) 61 83 97 IRUN

Erakusten dugu:

- Makrame
- Tridimensional
- Saskigintza
- Telar
- Eskaiola margotu
- "miga de pan"



Loradenda, bitxikeriak,
opariak, eskulangintza

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESAKA



EUSKALDUNA JATETXEA

Tfnoa.: 63 03 92
BERA



Eskualdeko alkateak eskatu-rik, martxoaren 17an etorri zen Juan Cruz Alli lehendakaria Bertizko jauregira. Bildutako alkateen galderei erantzunez eskualderako prestatua duen aktuazio programa agertu zuen. Karretera hobekuntzei buruz, Laminaciones-en egoeraz eta turismo plangintzaz ere hitzegiteko aprobetxatu zuen.



Ikastetxetako neska-mutiek trafikoaren gora-beherak ikasteko aukera izan zuten, Ikastolen Konfederazioak antolatu eta Trafiko Delegazioak lagundutako "Autopista" kanpainari esker.

Kezka Laminaciones-en etorkizunagatik

Zenbait mobilizazio burutzen ari dira



"Laminaciones de Lesaka enpresak, desgertzeko arriskua ere badu" adierazi zuen Enrique Lopez, lantegiko Enpresa Komitearen lehendakariak, martxoaren 5ean egindako prentsaurrekoan.

Sindikal Batzordeko kideek, hala ere, jendea ez dela arrisku honetaz konturatzen erran zuten, *"hilerio nomina kobratuz gero langileek ez bait dute arazorik ikusten"*.

Produkzio jeitsiera

Errekonbertsio plangintza aintzineraren eramaneraz gero, kabezeratan urtero produzitzen diren 2,2 milioi Tonatik 900.000 Tonara pasatuko litzateke, kontutan hartuz Laminaciones-ek urtero milioi terdi Tonakin lan egiten duela. Produkzio jeitsierak, langile murrizketa ekarriko luke, *"200 bat"* kalkulua baikorrenen arabera, inguruko lanpostuetan ere eraginez.

INFORMAZIOA:

- ✎ Nominak
- ✎ Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✎ Enpresa berrien sortzea
- ✎ Diru-laguntzak
- ✎ Errenta Deklarazioak
- ✎ Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



TOMASEK PATXIRI KONTESTA

Berritu duzu zure 2. marka, joan etorriko denbora, bainan ez duzu oraindik hobetutakoa agertzen. Guzia agertu behar da, ez konformitatea bakarrik, errealitatea baita. Auniztan galdetu badut ere ez dut ikusi zuen tartetik, beraz, seinale onik. Nik marka bat utzi nuen, ttikia bazen ere ongi estutua. Banekien ez nuela disfrutatzerik izanen. Bizkorrari baino beldur gehiagoin tranpari eta laister ailegatu zen. Beharbada nik bajatutako minutuak min gehiegi egiten zuten. Nere denbora 65' 43"

igoera. Zuk lehendabizian 72'57" eta bigarrenean 61'00". Nahi dena sinis daiteke. Pozik zaudela eta gainerako kontuak direla eta nere arazoa dela bukatzen duzu. Nik zure lanak egiteko, lasterka, oraindik arazo gutti daukat. Diferentziak mendian kendu nituen, ez rebistan. Lehenago nik deitu eta ez zinen etorri eta orain ez ari oihuka. Zeure 61'ko markari eutsi nahi badiozu nik neureari eutsiko diot. Finezia eta garbitasuna nahi baduzu egin bertze oihu bat eta dokumentu bat firmatuko dugu eguna, ordua, kondizioak eta behar diren testiguekin, ber-

tzenaz pakean utzi.

Tomas TELLETXEA
Arantza

ZUBIETATIK: BI HARRIDURA ETA AZALPEN BAT

1.-Inolaz ere ez dut ulertzen Herri Taldekoek eskribu hori sinatzea, horrela, taldeka, talde arazoa ez zen izan eta. a) Benantzio Baleztena abstenitu baitzen, bere botoarekin erabakitzen zenean, Patziku Mitxelenak, Iramendikoak, opzio merkeari eman zion beria; b) Ez dut uste, galdetu ez badiot ere, Jon Mikelek "influentzi trafikotzat" har dezakeenik eritzi ezberdinen ondorioz ematen den botazioa. Lehen harridura!

2.-Nola leike "gure herriaren onerako" "gauzak zintzotasunez egin errealitatea hitzen azpian izkutatzen? Bigarren harridura!

Azalpen bat, ez justifikazioa, bakoitzaren ikuspuntua berez justifikatzen baita dogma bihurtzen ez badugu. Hiru eskeintza ziren: Urte osorako garbiketak 100 mila pztatan, "merkeenak"; "garestienak" 112-tan, eta "berriak", 108-tan. "Merkeena" eta "garestiena", biak, arituak dira. Merkeenaren garbitze moduarekin ez nago konforme, garestienarekin bai, eta urteko 12 milako diferentziak ez dit

zalatzarik sortzen, horra "kalitatearen" tokia. "Berria"ri dagokionez, 16-17 urteko neskatxa, hagitz majua eta fidagarria, ezagutzen dudan afe-retan, baina Neri, 4 mila pztatako diferentziak ez dit ongi aritu den emakume bati lana kentzera eramaten, zuei bai?

Nere argudioak Ana Mari konbentzitu zuten, Patziku ez, Benantzio ez dakit, ... Gero botazioa etorri zen. Influentzia trafikoa? Errotarria ogi papurra deitzen dutezentzat bai!

JUAINAS

Zubietako Iramendi taldeko kontzejala eta ttipi-ttapako behin-behineko berriemailea.



JAURENA

MASTER

Sukalde mobleak - elektrogailuak

Rikardo Baroja 12 - ☎ 63 07 60 - BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

AHVko Sindikal Batzordeak "benetako zentzugabekeria"tzat hartu du Udalaren lan erabaki bat

ROMAN HARRIBILAGA

Horren arabera, mozioa aurkeztu zuen Herrialde taldeak "ez ditu ezagutzen Siderurgi Integralaren arazoak", hala ere, "bere eremuko industriaren mantentze eta indartzean lehenetsuzko edozein proiektu kontutan hartzeko eskubidea aitortzen diogu Udalari -dio sindikal Batzordeak aintzinarago- bertzeek burutzen ari diren plangintzetan sartzea ez den bitartean". Guzti horregatik "mozioa atzera bota eta eskualdeko Industri Alkateen Batzordearekin hartutako konpromezuak bete ditzan" eskatu dio Sindikal Batzordeak Berako alkateari, "ahalegin bateratze eraginkor batez AHV sendo dadin Siderurgi Integrala bezala orokorrean eta «Lesakako Laminategiak»



Sindikal Batzordeak martxoaren 3ko bileran eman zuen ezagutzera bere eritzia 4 puntuko agiri baten bitartez

gure eskualdeko benetako ekonomi-industri euskarria bezala".

Mozioaren edukia eta eztabaida

Onartutako mozioa Alkateak aurkeztu zuen Herrialderen izenean altzairutegi txikiko lantegia herrian eraiki dezaten bertakoak lehengaiaz hornitzeko.

EAKoei ez zitzaion "etikoki zuzena" iduritzen altzairutegia hemen para-

tzeko eskatzea "dauden industriak eraberritzeko neurriak hartu beharko liratekeela baizik". HBk berriz, "alderdi honetako inbertsio eza" salatu zuen, "aldez aurretik ez dugu gaitzesten altzairutegi txiki bat eraikitzea, baina Euskal Herrian siderurgi integral baten mantentzera joan beharko litzatekeela uste dugu" erantsiz.

Botaketan, mozioaren

alde Herrialdeko 4 botoak, EAKo 3ak abstenitu eta HBko biak aurka.

Urteko kultur programa...

udal Kultura Batzordeak herriko elkarteekin batera egin eta onartua du, 5.035.000 pztakoa delarik aurrekontua.

Gure Txokoaren Batzarre arrunta

Otsailaren 28an burutu zen. Iazko kontuetan, 9.741.848 pztakoko sarre-
rak eta 8.287.460ko irteerak agertu dira, 1.454.488 pza sobrante geldituz. Jantimotonea erosteko mailegua ere kitaririk geratu da.

Udal Musika Banda

...osa daiteke laister Beran. Martxoaren 11an egindako bilerara jende ugari bertaratu zen eta apirilaren lehen arratsaldeko 7etan bilduko dira berriro.

B RADIO BIDASOA



expert

RADIO BIDASOAk errex jartzen dizkizu gauzak:

- * Zure elektrogailua, TB, bideoa, etab, aukeratzeko laguntzen zaitugu.
- * Dohainik instalatu eta erabiltzen erakutsiko dizuegu.
- * 3 urtetarako garantia
- * Suterako eta lapurretaren aurkako aseguruua.
- * 36 hilabete bitarte dituzu ordaintzeko.

Kanttonberri 1, Tfnoa: 630377 - BERA

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Martxotik aintzinerara, boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA

LESAKA

Mila pertsona inguru Laminaciones-en etorkizunaren alde

Martxoaren 7an egindako manifestazioa, herrian egindako haundienetarikoa izan zen

AITOR AROZENA

“Mila pertsonatik goiti” Sindikal Batzordearen ustez bildu ziren Martxoaren 7an, Laminaciones-en industri etorkizunaren alde egindako manifestazioan.

Manifestariak, Erosle ondotik aterita, Bittiria, plaza, Arretxea, Albistur eta Plaza Berri karriketarik barrena ibili ziren, Plaza Zaharrean bukatuz ibilaldia. Bertan, AHV itxtearen aurka zonalde guztian egindako firma bilketa kanpainan baten berri eman zen baita hurrengo egunetan egindako mobilizazioetan (bertzeak bertze Madrilen) parte hartzeko eskaria luzatu zen. Ondoren irakurritako idatzian, “Laminacionesek 1.800 langile enplegatzen ditu, baina gainera eragin handia du zonaldeko ekonomiarekiko, bertan ari diren lan-



ELA, LAB, CCOO, CC eta UGT sindikatuak konbokatutako martxoaren 7an egindako manifestazioa

gileez gainera, 8.000 lanpostu sortzen dituela kalkulatu baita” erran zen. Horrela, AHVko kabezeran, produkzio jeitsiera ematen bada, Laminaciones-entzat suposatuko lukeen enplegu galera azpimarratu zen, produkzio ahalmena mantentzeko “Nafar Gobernuaren eta eskualdeko udalen laguntza” eskatuz, azkenik.



Herriko 3 bertsolarik parte hartuko dute Nafarroako bertsolari txapelketan: gaur egungo txapeladuna den Manolo Arozena eta lehen aldiz aurkeztzen diren Estitxu Arozena eta Xabier Silbeira gazteak. Beren saioa, hilaren 29an, Sunbillan.

ttipi-flash

□ **Andra Mari** asiloa (lehen La Inmaculada izenekoa) gestioatzeko erakunde autonomoa sortu zen. Bertako Gobernu junta osatuko dutenak, alkatea eta udal talde bakoitzeko kontzejal zaharrenarekin batera, Juan Aiastui, Ricardo Ariztegi, M^a Luisa Pellejero, Alvaro Telletxea eta Tomas Maia herritarrek izanen dira.

□ **Igandetako** dantzaldiak %18an subentzionatu dituzte Herriko Etxeak aurtengoan. Bi larunbatez ere egonen da musika.

□ **Eskualdean** ehizirako eremua sortzeko Berako Udaletik etorritako idatzia ez zuen onartu Lesakakoak.

□ **3 langile** kontratatu dituzte Udalak INEMen laguntzaz, bideak eta karririk moldatzeko eta bertze zenbait lan egiteko.

XATURETXEA FONDA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

KAMINERO

OSTATUA

Beheko Plaza 1, Tfnoa: 637243 - LESAKA

IRUBIDE

OSTATUA ERRETEGIA

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

Deñe

LENTZERIA MERTZERIA

Tfnoa.: 62 75 14

Beheko Plaza 8, LESAKA

ONIN
Agentzia

Albistur 53
Tfnoa: 637359
LESAKA

- Aseguruak eta kontabilitatea
- Errenta eta IVA deklarazioak
- Eskrituren likidazioa
- Edozein aferetarako ofizina
- Zuzarren-en kolaboratzaileak



Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

Iñauteak gero eta gazteagoak



PELLO APEZETXEA

Gero eta jende gazteagoren eskutik egiten bait dira. Hogei urtez goikorik zenbat mozorrotu zen? Jubilatuek sartu zuten aurretan urtegabeko berrietasuna.



Ortzegun gizenak maila ona mantentzen du, eskolatik prestatzen delako, noski, nahiz ez diogun helduok kaso haundiegirik egiten, etxean geldituz.

Argazkiak: PELLO APEZETXEA

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Zure publizitatea 15 egunero 5.000 etxetara zabaldu nahi baduzu, deitu 631188ra

Euskara irakasle izan nahi duzu?

Deitu 637796 Tfnora

BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIRA



ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA

KOXXKONTA

Sagardotegia zabalik



Sagardotegia Erretegia

Ezkontza, bataio, bileratarako leku egokia (200 pertsona)

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena zugandik hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

IGANTZI

Teilatua moldatuz hasi dira elizaren obrak

Lan guztietarako aurrekontua, 3 miloi t'erdi ingurukoa da

OSKAR TXOPERENA

Duela hilabete t'erdi eman zitzaion hasiera elizan egin beharreko obrei. Teilatu moldatzea, argiaren instalazioak rebisatzea, eliza barnetik pintatzea eta aldareko erretabloba garbitzea dira lanik haundienak.

Teilatua dagoeneko moldatua dago, teila txarra aldatuz eta itxosurik ez izateko plakak sartuaz.

Lan guztietarako aurrekontua 3 miloi t'erdikoa da gutti gora behera, honela banaturik: teilatua moldatzea, 800.000 pzta; argia berritzea, 200.000 pzta; pinturalana, 1.200.000 pzta eta erretabloaren garbiketa, 1.100.000 pzta. Sarre-
rak berriz, leku hauetatik



Eskertzekoa izan da jendearen parte hartzea teilatua moldatzeko auzolanean

OSKAR

espero dira: Nafarroako Gobernuak 800.000 pzta, obispadoak, 200.000 pzta, elizan bildutakoa, 500.000 eta miloi t'erdi Igantziko familiek emandakoa. Gai-nontzekoa, bertze lagun-

tzatik etortzea espero da.

□ Norbaitek jendea bere etxean eduki nahi badu euskara ikasten uztaila eta irailaren artean, jakin dezala dirulaguntza dagoela horretarako Gasteizko Go-

bernutik. Laguntza hau 50.000 pezetakoa pertsona eta hilabeteko izanen da. Baldintzak betetzea errega da Igantzin. Familiko guztiak euskaldunak izatea nahitanahiezkoa. Informazio gehiago nahi baduzue Udaletxea jo martxoaren 26a baino lehen.

□ Neguan mendietan plantazioak egin badituzue erne egon. Mendizaina apirilaren 6tik 11rako astean etorriko da dirulaguntzak eskatzeko paperak betetzera. Egun zehatza erranen zaizue abudo.

□ Jende aunitz omen dago oraindik iazko auzolanetako orduak bete gabe. Oraindik badago denbora Udaletxera joz gero.

GOZOTEGI - JAZONE

Itzea 3, 630786 - BERA

KLOXKA

Legia 11 - 63 06 64 BERA

LAINO

HAUR JANTZIAK
OINETAKOAK
ETXERAKO ZAPATILAK

San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

BOTXO ostatua

Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

BORTZIRI

Itzea 4, behea - BERA
Tfnoa: 63 10 91

- * Asistentzia teknikoaren zerbitzua
- * TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
- * Bakarkako, kolektibo edota satelite bidezko antenak ere paratzen ditugu

EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia

Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

BITTIRIA HARATEGIA

Bittiria 43 - Tfnoa: 627555
LESAKA

Negua joan da, biba udaberria!!

Halere, Igantziko Bentarako bide eta zubia moldatzeko urte bat esperatu beharko da

JON LARRETXEA

Negua akautu da, beraz animo. udaberriak alaitasuna eta poza berekin bait dakar. Hala ere, negu bukaera honetan badaude zenbait berri komentatzeko.

Eskola kontseilua...

segituan hasi da lanean eta mozio bat aurkeztu du Udalean 14 urte arteko ikasketan herrian egiteko aukera izatea eskatuz eta aldiberean, 16 urte arteko zikloa eskola publikoan emateko laguntza eskatuz. Lehenengo puntua ahobatez onartu zen eta bigarrenak ez zuen PNVren onespunik lortu eta gainontzekoen botuekin onartu zen.



Mozorro zuriak. Jabier M^o erdi-erdian inauterietako saltsan.



Ander eta Gaizka arpanean. Errandoneatarrek badute segidarik.

Igantzi eta Arantzako...

alkateak Nafarroako Gobernuan egon ziren Igantziko Bentarako bidea eta bertako zubia konpontzea eskatuz. Proiektua egina dago baina dirurik ez

omen dago eta aurtengoz ez omen dute egingo erantzun omen zieten.

Iturriotz-ko kurba zabaltzea ere aztertzen ari omen dira baina honek ere esperatu egin beharko dirua izan arte.

Herri Kirol Taldea ere...

hortxe dabil jo ta ke prestatu eta prestatu.

Errifa ere atera dute. Laster euren garaipenen berri ematen hastea espero dugu.

ATERPE
jatetxea

Mendi ibilaldietarako Mountain bike bizikletak alokatzen ditugu
Tfnoa.: 63 41 79 - ARANTZA

SAROB
okindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

EKAITZA OSTATUA

Altzate - BERA

MANOLO
TABERNA

Edari Banatzailea

Errefreskoak, Ura,
Ardoak, Likorrak,
Txanpaina

Tfnoa: 63 10 27 - BERA

SARA

Larunbata eta igandez ospatu ziren inauteriak

Bertzalde, Mus-eko irabazleak bi egunez Pariserat joaitea ardietsi dute saritzat

OLHAIN ELKARTEA

Larunbatarekin gazteak auzoz auzo ibili ziren, zaldiz eta oinez, Josune eta Ainhoa trikitilariek lagundurik. Arratsean afari herriko batean bildu ziren Akelarre ostatuan. Igan-dearekin, gazteak mozo-rroturik berriz plazan elgarretaratu ziren eta Zanpantzar erre zuten. Zazpiak Bateko dantzariak ere dantza andana eskeini zauzkuten. Buru haundiek beren ateraldia egin zuten ere. Karia huntarat, bihotzez eskertzen da Leitzako Aurrera elkarteak hauek pres-tatzeagatik. Hauetaz aparte eta azken urte hauetan ohidura den bezala, gizon eta emazte talde bat ager-



Leitzako buruhandiak ibili ziren Sarako Inauterietan



Txapeldunak: Peio Echeveste eta Michel Pradere

tzen zen mozo-rroturik er-lez, uliz, mari-burruntzaz eta bertze, antzerki ttiki bat alegia. Ekitaldi hauek guziak giro onean iragan dira. Bi orenetan gazteak Trinketerat joan ziren bazkaltzerat. Iturengo trikitixak hor ziren egun osoan bazterrak alaitzeko. Orai

danik heldu den urterako hitz-ordua finkaturik dago gazteen partetik.

Musaz bi hitz

Otsailaren 29an bukatu zen, ohidura den bezala Zikiro herriko batekin. P. Elizalde ongixko errea gainerat K. Azpirozen la-guntzarekin... Irabazleak

hauexek ditugu: Peio Echeveste eta M. Pradere, 3 eta 1. Bigarrenak Mattin Lafitte eta Patrick Perugorria; 3.ak J.M. Jauregi eta Pierrot Santesteban eta 4.ak C. Etchegaray eta Serge Bats. Saritzat irabazleak 7-8an Laborantzako Erakusketara joaitea ardietsi dute.

MENDI HOTELA



DONAMARIKO BENTA

Jatetxea

Tfnoa: 450925 / 450708 - DONAMARIA



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel Guerendiaïn

SARA - LAPURDI



ARROPA ETA OPARI DENDA

Tfnoa: 451540
Mercaderes 9
DONEZTEBE

Bertsolari txapelketako saioa izanen da 29an

Bazkaria 100 lagunentzat Ulibeltzak elkarte

PATXI PETRIRENA

Aurtengo Nafarroako bertso txapelketako hirugarren saioa Sunbillan izanen da martxoaren 29an, larunbata. Parte hartuko duten 8 bertsolariak honako hauek dira: Manolo Arozena (gaur egungo txapel-duna), Estitxu Arozena eta Xabier Silveira gazteak, lesakarrak, Bittor Elizagoien arraioztarra, Bautista Madariaga aranaztarra, J. M. Fagoaga ituindarra, J. F. Argiñarena errazkindarra eta J. L. Laka Baigorrikoa. Bi gazteenak lehenbiziko aldiz hartuko



Bautista Madariaga izanen da Sunbillan airtuko den zaharrena

dute parte Nafarroako txapelketan baina zaharra-
goiei nahiko lan emanen
dietela uste izatekoa da.

Egun horretarako baz-

karia antolatu du Ulibel-
tzak elkarteak 100 lagun
arte biltzen ahal direlarik.
Txartelak hartzeko bertara
edo Herriko Etxera joan.

Zulo haundiagoa

Tunelean guk erran ge-
nuena baino zulo haundi-
agoa egin omen dute da-
goeneko. 100 metrotik
aintzineran joanak omen
dira, baina zulatzeke ma-
kina batentzat argindarra
hartzeko postea belagi ba-
tean edukitzeko ezadosta-
sunak direla eta makina
berezi hori geldirik omen
dago.

Entrenamentuak

Hasi ditu herri kirol tal-
deak aurtengo entrena-
mentuak. Hemezortzi la-
gun hamasei urte azpikoak,
lau neska tartean, eta haun-
diak ere bai.

Diputazioak udalei diru gehiago bideratzea eskatuz

Onartu berri du Urrozko Udalak HBk aurkeztutako mozioa

TXEMA URROTZ

Udalek urrekontuak egiterakoan Diputazioko aurrekontuetatik datozen laguntzen mende daudela eta, HBk aurkeztutako mozioan zenbait eskaera egiten ziren. Hauek dira laburki: Udaletara zuzendutako dirutza haunditzea, inbertsio programa baten zehaztapena Udalak dituzten azpiegitura eta zerbitzuetarako, Nafarroako

aurrekontuetan dirutza finko bat izatea zenbait zerbitzu garantizatzeke (kultura, kirola...), Montepio eta klase pasiboekiko arazoaren konponbidea eta lekuko finantzako legearen lantzea.

Sasi erretzeak direla eta...

norma gogorak ezarri dira eta baimena eskatu eta lortuarren Gobernuoko teknikoak ibili da erre nahi diren zenbait bazter ikusten.



ARTXIBOA

DONEZTEBE

Behin-betirako langile berri bat hartuko du Udalak

Bertze borts langile ere kontratatuko dira aurtengo obretarako, INEM-en laguntzaz

TXEMA ALDABE

Azkeneko bilkuran langile berria hartzeko deialdiaren baseak onartuak izan ziren, 7 kontzejalen baietza eta baten ezezkoarekin, UDkoa, hain zuzen. Honen arrazoia ezezko botoa emateko zera izan zen: euskararen eza-guerak prueba praktikoek adina baloratzea.

“Servicios múltiples” delakoaren lanpostu honek, orain dagoen behin-behinekua edo ebentuala ordezkatzeko du.

Lan kontuekin segituz, INEM-en laguntzaz, urtero egin ohi den bezala, aurt



Gero eta Inauteri ederragoak ditugu Donezteben. Aurtengoak umore ederrean igaro ziren eta era guzietako disfrazak ikusteko aukera ere izan genuen. 5.000 pezetako lehen saria, Gorbatxov eta Felipe Gonzalezen mozorroak irabazi zuten.

ere zenbait obra eginen dira, bertzeak bertze, argiteria, saneamendu sareen mantenimendurako eta

herriko bideak moldatzeko. Lan honetarako, ofizial bat eta 4 peoi kontratatuko dira.

W ttipi-flash

□ 55.000 pztako subentzioa eman die Udalak eskolako 8. mailako ikasleei, ikasbidaia egin dezaten.

□ 784.745 pzta. jasoko ditu Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak Udaletik, iazko kuotari dagokionez.

□ Mendi lanetarako, «todoterrenoa» bere erre-molkearekin erosiko du Udalak.

□ Irrati Mankomunitatea sortzearen alde agertu zen Udala.

□ Urtebetez luzatuko zaio kontratua administrari laguntzaileari.

ELGORRIAGA



Inauterietako berri

J.I. OLAZAR

Umore ederrean pasatu ziren otsailaren 1, 2 eta 3an. Larunbatean puxka biltzen ibili ziren gazteak eta afarian giro izugarria izan zen. Igandean, jende aunitz mozorrotu zen. Herriari itzulia eman ondoren, bildotsa eta konejua sorteatu ziren. Ramon Mitxelena eta

bere akordeioiak musika paratu zuten egunero.

Jubilatuen Eguna

Ituren, Zubieta eta Elgorriagako 86 bildu ziren otsailaren 22an Arkupeak antolatutako mezara eta Kultur Etxean egindako bazkarira. Zubietako Lorenzo Baleztenari tokatu zitzaion urdaiazpikoa.



Estilo propioz egindako arropak

San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE

Beatriz

ILEAPAINDEGIA

San Miguel, 450922 - DONEZTEBE

- ❖ Ileapaindegirako ordua eskatu
- ❖ Solarium-a
- ❖ kalitateko perfumeak
- ❖ Bitxitegi fina

Azken plenoan, kontuak garbi

Iazkoan, 55 milioitik goiti sarrera-irteeretan

IBAN ISASI

Martxoaren 7an Udaltean egindako ezohizko plenoan, iazko kontuak aditzera eman ziren.

Diru irteerak 55 milioitik goiti eta diru sarrerak, bertzeak bertze, subentzioak, obra baimenak, kontribuzioak... Guztira 53 milioi, eta 1990eko superabita kontutan harturik, 55.603.992 pzta. Ondorioz,

zenbaki hauek kontutan hartutik, aurtengorako ere, milioi erditik goiti dago.

Aurtizko ostatuaren kontratua moztu

Martxoaren 1ean, 15 egunetako denbora ematen zitzaion Aurtizko ostatuan ostalari zirenei, lokala desalojatzeko. Honela ostalaria eta udala akordiora ailegatu dira, eta udalak, 300.000 pzta ordaintzeko



Aurtizko ostatuaren kontratua moztu egin da

ARTXIBOA

konpromezua hartu du giltzak eskuratzean. 20 urte-tarako hartua zuten ostatu

orain arteko ostalariak eta gutti falta zen kontratua akitzeko.

ZUBIETA

JUAINAS

Bisust-urteari bota beharko diogu errua! Gure betiko saltsan ginaudela, bapatean, elizdorrea trukatu digute, palazioa aspaldiko dorrean bihurtu eta zubia, izena ematen digun hori, Donamarira eraman. Sevillara izan ez denean eskerrak. *ttipi-ttapat*arren fundameto eskasia iraunkorra izanen ez delakoan gaude. Beste txanda ematen diegu, badaezpada ere!

Batez ere nik antzeko zerbait egin nuelako: Hai-zea Atxonera ekarri nuen bere gurasoak Iruñean utzi

nahi dutelarik. Betiko? Asteburu eta udako zubitarren taldeko beste bat izanen da, gutxienez!

Herria, dena den, eta paperetan behinpein, ez da hustuko, Petrixengo Tomas eta Marixuxek Bidane bat ekarri bait dute, Antoniok eta Asunek Joneri harrera egiten ziotelarik. Zorion pilaka!

Eta ez dira urtearen eraginak hemen bukatzen. Alkatesarik gabe gelditzen gara, ondarreko plenoaren bukaeran Ana Marik dimisionea eman zuen, arrazoi pertsonaletan oinarriturik. Mundu hontan inor ez



Zubia, Donamariatik bueltan

ARTXIBOA

omen da ezinbestekoa, bale, baina nik, behintzat, pena galanta hartzen dut.

Makurragoa da Pello-rena. 5 bat urte idazkari

lanean gu aguantatu eta uzten bait gaitu berak ere. Kaguen bisustea, bostgarren mendeurrena eta nobentaidosa!

Nerea *Oinetakoak*
San Miguel 2, DONEZTEBE

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa.: 45 04 91

Gauzak irakitten daude Udaletxean

Baliteke alkate-aldaketa egotea



Juan Oronoz
alkatea eta
alkate
ordea

ANTTON
Argazkia

ANTTON ERKIZIA

Lehen ere gauzak bero baldin bazeuden Leitzeko udaletxean, orain irakitten jarri da egoera.

Egun gutxiz, gauza asko gertatu da: Barberia zinegotziak (EA), bere taldekoa den Oronoz alkatearen dimisioa eskatu zuen bere partiduaren aurrean, "zikin eta izkutuan jokatzeko ari delako".

Hurrengo Udal batzarren iskanbila gogorra izan zuten Oronoz eta Barberriak, salaketa eta hitz lo-diak boteaz elkarri.

Udaletxeko martxa dextente usteltzen ari zela ikusita, HB eta Independentiek elkarrekin bildu eta solastu dira, irtenbide sano bat behin betikotz bilatzeko. EAK ere bilera batera deitu ditu Indepen-

dienteeek.

Hau idazteko momentuan (martxoak 12), hauxe aditzen da: zortzi zinegotzik Juan Oronoz alkateztatik kendu eta beste bat ezartzea eskatuko ote dioten EA berari.



ANTTON Argazkiak

Biblioteka, leku berrian...

Jakina da herriko biblioteka, liburutegia, lekuz aldatu behar izan dutela, Lesakeneatik Haurtzaindegira eramanaz, oraingoz beste toki bat egokitu arte. Egia da urruti antxa gelditzen dela orain, baina toki

"berria" erabat ederra, argia eta epela dela ere egia da. Eta zabala, eskoletako talde-lanak burutzeko, bertan irakurtzeko...

7.600 liburu ale dauzka bibliotekak (horietatik 600 bat euskaraz), eta lehengo urte hortan, 1.300 liburu utzi zituen prestamoan, etxean irakurtzeko.

Gizon-emakume Adintuen Eguna



Beroa eta polita izan zen "Caritas" eta "Arkupeak" antolatutako Leitzeko gizon-emakume Adintuen Eguna. Koxme Zabaleta egon zen omenaldiaren presidentzian, eta elegante aski egon gainera aitona, Koxmek bait dauka "kuedarik" hortarako eta gehiagorako ere. Gainera, bere buruaz gain, etxeko seme eta erraina, eta biloba txikia ere bere ondoan nahi izan zituen, biziak eta munduak aurrera darraitela adieraziz. Besta aiton-amon batzuk ez zuten etxetik irteterik izan, bainan trikitixa beren etxetarraino joan zitzairen, lore sorta bana eramanaz.

Bi emakume Umore Ona elkarteko bazkide berrien artean

Joseba Mitxelenak beteko du datozen bi urtetan presidentearen postua

ESTEBAN AROZENA

Martxoaren 8a izendatu badute ere ofizialki Emakumeen Eguna, esan daiteke 24 ordu aurreratu zela aurten gure herrian, azken 8 urte hauetan hainbat eztabaida eta haserre sortu duen errebindikazioa behin betirako betea gelditu bait zen Martxoaren 7an, hau da, Umore Onako bazkide bezela emakumeak onartzea.

Amaia Huizi eta Pili Untxalo dira elkarte honen lehenbiziko emakume bazkideak, baina bozketa honetaz gain, zuzendari-tzako partaide berriak aukeratzea ere asanblada-



Amaia Huizi eta Pili Untxalo Umore Onako bazkide diren lehen emakumeak

Argazkiak: ANTON

ren eguneko aztergaiari zegoen. Bestalde, Joseba Mitxelenak beteko du datozen bi urtetan presidentearen postua, Jesus M^a Apezetxea Salaberria izanen da idazkari berria eta Andoni Etxenike bokala.

Etxebizitza berrien premia

Udaletxean jasotako eskaeren arabera, oso premiakoa da Goizuetan, 58 herritar izan baitira otsailan zehar burutu den inkestari baiezkora eman

diotenak etxe bat erosteko duten asmoa edo beharra azalduz. Esan dezagun, 18-70 urte arteko jendea dagoela interesatuen zerrendan. Halere, aipagarria da 20-30 urte ingurukoak direla asko 58 hauen artean.

ERATSUN

Aspaldiko partez aurten ospatu dira iñauteriak

M^a ANGELES JUANENA

Urte asko eta asko dira iñauteriak ospatzen ez zirela, bainan ohitura berri-tuz, aurten ospatu ziren otsailaren 14, 15 eta 16an. Hasteko, ostilarean afaria egin zen gazte, zahar eta



gainontzekoekin eta afal ondoren, musika akordeolariarekin. Larunbatean bazkal ondoren, etxez etxe ibili ziren ume eta gazteak akordionista eta bi bertso-larirekin -Telleria eta

Mendizabal-. Gauean, afal ondoren, musika izan zen akordionistaren goizko 4.30ak arte. Igandean, azkeneko eguna zenez, bazkaria eta segidan trikitilariak aritu ziren. Dato-

ren urtean berriz.

Haurrak kontent

Izan ere, Udalak zabu edo kolunpio bat edo bertze jartzea erabaki baitu berriki.

BAZTAN

55 nekazarik esne kuota produzitzeko baja eman dute

Bertan gelditzen diren nekazarien artean banatzea eskatzen du EHNEk

JOSEBA

Baztango Nekazal ganbarak emandako datuen arabera 55 nekazarik eman dute beren esne kuota produzitzeko baja. Kuota hau, Madrilgo ministeritzaren esku geratzen da. EHNEk eta hemengo nekazariak, baja emandako esne kuota hemen bertan gelditzen diren nekazarien artean banatzea eskatzen dute.

Adiskidantza besta

Berroeta eta Anizeko herritarren arteko harremanak arras onak dira. Urte zerrenda daramate elkarrekin adiskidantza besta ospatzen San Jose egunean. Mus eta pilota txapelketaren finalak San Jose egunean jokatzen dituzte, eguerdian denak mahainguruan elkartzeko bazkari eder bat dastatuz. Aurten, San Jose eguna besta ez denez, hurrengo igandera pasatu dute ospakizuna.

IKEIren ikerketa

IKEI erakundeak ikerketa lan bat egin du muga ondoko herriek eta eskualdeek Europar sartu eta Merkatur bateratua jartzean zer eragina jasoko duten



Musika banda eta zuzendariari omenaldia eginen zaie

ARTIBOIA

jakiteko. Nafarroako Gobernua eskaturiko lana zen eta 5.100.000 pztakosta da.

Zuhaitz plantaketak

Ikasle eta gurasoek zuhaitz plantaketan arituak ditugu. Bagordi aldean, haritz eta bertz hainbat zuhaitzondo sartu dituzte.

Langile beharra

Ludotekan 4 ordutako langile baten beharra dago. Eskatutako baldintzen artean magisteritza, giza laguntzaile edo antzeko tituluak da beharrezkoak. Psikologian edota kultur animatzaile ikastaroak edo espezializazioa ere puntuatuko dira.

Poligono industrial

...berria irekitzeko asmoz, Baztango udalak bilera bat egin zuen interesatuekin, jende mordoxka bilduz martxoaren 14ean Elizondoko Balleko Etxean, informazioa emateko alde batetik eta bideragarritasuna ikusteko asmoz bertetik. Udalak, lan krisi egoera ikusiz, irtenbideak bultzatu nahi ditu, bailaran lanpostuak sortu daitezzen.

□ Erratzun, 21ean, "La Polla Records" eta iparraldeko "Beltzek" taldeek joko dute Xorroxin Irratia, Erratzuko Gazteak eta Baztango Beltzek antolaturiko gau-pasan.

W ttipi-flash

□ Elizondoko Koralarren 50. urteurrena dela eta, Udalak zera erabaki du: Elizondon, Balleko Etxea eta Arizkunenea Kultur Etxearen arteko plazari Koralarren izena ematea eta aldeberean, plaza horretan Juan Eraso koralarren zuzendariari monumentu bat altxatzea. Guzi honetaz gain, Nafarroako Gobernua eta Principe de Viana-ri, Korala eta Eraso zuzendariarendako sari ezberdinak eskatzea ere onartu zuen.

□ Diruzain lanpostua betetzeko, beharrezkoak diren baldintzak bete eta langabe zerrendatan apuntatuak diren erlazio eskatu dio Udalak Doneztebeko INEM-i.

□ Aintzineko Udallegealdia gestio ekonomikoa xeheki aztertzeko, auditoria egitea onartu du Udalak PSOEn mozioa onartuz.

□ Arizkungo erretorea den Bernardo Sokobehereri 60.000 pztatoko dirulaguntza emanen dio Udalak "Elkartasuna" aldizkaria argitaratzeko.

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 60

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

Udaberriko telak
eta arropak

Zerria kurrinkaka

Kaminokobordara ailegaterakoan

MARGARI eta KORO

Iñauterietako astelehena, Mendiko Eguna izaten da eta urtero Kaminokobordan bazkaltzen dute dohainik gazteek. Normalki koadrila 25-30 gaztez osatua izaten da bainan aurten 44 izatean, gehiegi zen hainbertzek etxe partikular batean dohainik bazkaltzea. Horrela, gazteek nolazpaite ordaindu nahiez 100 kiloko zerria oparitzea pentsatu zuten. Bi lagunen artean zerria hartu

eta ereman zuten, baina Joxemari (herriko zerrihiltzailea) han ikusiz broma tiki bat gogoratu zitzaion: bertzeei bidean zerria ito eta hil egin zela erratea. Ondotik bertze guziek Joxemari ikusi eta seko sinetsi zuten eta baserri baserri berri txar hura hedatu zen. Gero egia erran eta konpondu nahi izan zenean, herriraino ailegatua zen: "gazte horien fundamentutikia, ez dakite zerritxar bat zaintzen ere...". Hala dela eta, gazteek *tti-*



pi-ttapa bidez jakinarazi nahi dute: zerria bizi zizirik ailegatu zela Kaminoko-Bordarat eta norbaitek dudarik balin badu ga-

ten ahal dela bere begiekin ikustera. Eta bidenabar-koan, Kaminoko-bordakoeri: milesker aunitz bere harrera onarengatik.

FZ
FOTO ZALDUA
Argazkiak, Bideoa, Markoak
Instalakuntza berriekin, roiloen errebelatzea "ordu bat" baino gutiagoan egiteko aukera, «Fuji» kalitatearekin
Elizondo Tf: 58 04 91
Doneztebe Tf: 45 03 64

ARLA
ARDOTEGIA
Ardo botilatua
eta botilatu gabea
Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66
ELIZONDO

ERRATZU
OKINDEGIA
zure eguneroko ogia
453168 - ERRATZU

fm FOTO MUGAZKOR
Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa
Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

OSKORRI
LIBURUDENDA
Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

«ZALDUBI»
SUKALDE
MOBLEAK



Altzari fabrikazioa eta muntaia
Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 45 20 77
IRURITA - BAZTAN

Eta orain, zure koloretako argazkiak
ORDU BATEZ ERREBELATUAK
ditugu

Eskezaroi
jatetxea
Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

IRAGARKI HAU 5.000 ETXETAN SARTU DA
zurea ere sartuko da
publizitaterako
ttipi-ttapa erabiliz

ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA

URDAZUBI

Giro ederrean pasatu ziren aurtengo Iñauteriak

Martxoaren 1, 2 eta 3an ospatu ziren, 4ean Hausterre eguna izan zelarik

ALIZIA OLAIZOLA

Iñauteriei eskolako haurrek eman zieten hasiera mozerro eta txokolatada eginez frontoian. Bertzalde, iñauteria orain arte bi egunez ospatzen bazen ere, aurten 3 egunez. Guzira 3 talde ibili dira etxez-etxe eskean. Txiki eta haundigoak Legasako akordeolariekin eta herriko gazteak, beti bezala, Modestorekin. Igande eguerdian herriko gazteak, guziak mozerroturik, Dantxarineako Bontetan dantzak eskeiniz ibili

ziren Modestoren konpainian. Biharamun goizean Leorlas, Alkerdi eta azkenean Larrainta kurrutu zizuten. Asteartean Iribere, Landibar eta Tejeria auzoak eta akabailan herria bera. Egunero, afaria eta gero dantzaldia goizalderarte. Azteazkenean, Hausterre eguna, goizean meza eta arratsaldean, nahi zuenarentzat, Errauts hartzea.

Pitika jatea...

...martxoaren 8an Pitikonean Gabrielelek antola-



turik. Gizon andanaxka bat gonbidatua zegoen eta Landibarko Martin Joxe izan zen pitika erretzailea.

Bazkaria arras ongi prestatua zegoen eta Pakitak Lauriren laguntzarekin zerbitzatu zuen bazkaria.

Masaia eta bizkortze ariketak

Txomin Irazoki (Fisioterapeuta)

Astehenetik ortziralera, 15.30etatik 19.30etara

Eztegara 24, Tfnoa: 63 13 91 - **BERA**

Asteazken arratsaldeak etxetara bisita egiteko egunak izanen dira

Bi garaino salgai

Burgete arrazakoak
4 eta 6 urtetakoak

Tfnoa: 45 01 60

COMERLAV

S.L.

HEZETASUNA... komertzio, biltegi edo almatzen, etxebizitza, garaje etabarretan...

DANTHERM lehorgailu berriei esker, hezetasuna kontrolatu eta kentzea garantizatua dago.

ETXE BERRIETAN

DANTHERM lehorgailuen bitartez, etxe berrietako paretak, zolak eta tetxoen lehortze prozesua nabarmenki azkartzen da, gero, pintatu, parketa jarri edota bertzelakoak egin ahal izateko.

Salmenta eta alogera

Joaquin Beunza 10, Tfnoa: 13 15 27

IRUÑEA



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - **DONEZTEBE**



ESTETIKA * SOLARIUM

GIMNASILEKUA

Eztegara 17, Tfnoa: 63 04 83 - **BERA**

EZKONTZAK

Jose Luis Vazquez Gonzalez eta M^a Josefa Tarazona Larretxea, Lugo eta Labaingo, martxoaren 2an.

JAIOTZAK

Bidane Elizalde Mitxelena, Zubietan, otsailaren 23an.

Jon Juanena Etxekolonea, Zubietan, martxoaren 2an.

Marta Otermin Leiza, Donezteben, otsailaren 19an.

Iñaki Elizalde Mariezkurrena, Donezteben, otsailaren 14an.

Nerea Telletxea Gonzalez, Donezteben, otsailaren 26an.

Irene Elizondo Urroz, Urrotzen, otsailaren 11an.

Mikel Olazar Bazterrika, Elgorriagan, otsailaren 10ean.

Peio Echeveste, Saran, otsailaren 22an.

Asier Andueza Ostolaitz, Beran, martxoaren 7an.

Iker Sein Etxeberria, Igantzin, otsailaren 15ean.

HERIOTZAK

Javier Huizi Loiarte, Goizuetan, otsailaren 29an, 64 urte.

Ainhoa Zubieta Inda, Beran, martxoaren 7an, 6 urte.

Pilar Matxikote Petrikorena, Donezteben, otsailaren 27an, 83 urte.

Jose Grajirena Otxandorena, Beintza-Labaienen, martxoaren 3an, 76 urte.

Justo Ballarena Elizondo, Erratzun, martxoaren 9an, 68 urte.

Martin Aranburu Unsain, Leitzan, martxoaren 9an, 84 urte.

Juan Ariztia Karrikaburu, Urdazubin, martxoaren 11an, 83 urte.

Cristina Iraizoz Iraizoz, Beran, otsailaren 24ean, 80 urte.

Raimunda Mitxelena Arribillaga, Beran, otsailaren 29an, 83 urte.

Concepción Sacristan Enche, Beran, martxoaren 2an, 73 urte.

Aurelio Mir Canalda, Beran, martxoaren 10ean, 69 urte.

Josefa Lastiri Ibarra, Sunbilla, martxoaren 5ean, 81 urte.



KAMAMILA

DENDA NATURISTA

- ✿ Mediku kontsulta naturista
- ✿ Sauna (ordua eskatuz) eta masajista

Merkado Errepidea, 2. Tfnoa: 451 528 - DONEZTEBE

Zure publizitatea 5.000
etxetara zabaldu nahi
baduzu, deitu 631188ra

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

**NARBARTEKO
HERRIKO
OSTATUA**

MENUAK eta KARTA

San Andres 1 • NARBARTE

ORDOKI Altzariak

Estilo guztietako mogleak

ERAKUSKETAK:

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27

Tfnoa: 637034 - **LESAKA**

Larunbat
arratsaldetan
zabalik

Irailetik hasita abelzantzari buruzko kurtsoak burutzen ari dira Mugairiko San Martin eskolan

18 eta 40 urte bitarteko eskualdeko berrogeitamar lagunetik goiti eman dute izena

Iazko Irailean hasita datorren Apirila bitarte, eskualdeko 50 gazte inguru ari dira Oronotz - Mugairiko San Martin eskolan, abelzantzari buruzko zenbait kurtsoan parte hartzen. Hilabetero, aste batez, baserriko lanak goizean goiz bukatu eta laisterka eta presaka ailegatzen dira eskolara, bertan irakasleen esplikazioak jasotzeko. Kurtsoak, ITGk antolatzen ditu, Nafarroako Gobernua eta INEM erakundearen babesaz, eta jende alde-tikan, behinpein, izugarritzko arrakasta izan dute aurtengoan.



Gehien bat Baztango jendeak eman du izena kurtsoan, baina baita ere Malerreka, Bortziriak, Bertizarana, Sunbilla eta Urdazubiko gazteek.

Kurtsoak, berez, bi sailetan banatuak daude; betabereen abelzantza eta artabereen abelzantzari buruzkoak, nahiz eta zenbait klase elkarrekin eman. Ez da errexat izaten, azienta lanak utzi eta eskolako mahai eta aulkietan esertzea, batez ere eskola kontuak aspaldixko atzenuak zituztelako gehienak. Baina hala ere, hilabetero, aste batez, goizeko 10etan hasi eta eguerdiko 2ak arte biltzen dira, baserriko baliagarriak izan daitezkeen zenbait gauza ikasteko asmoz. "Horregatik -diote

bai Ramon Apezetxea San Martin eskolako zuzendariak eta bai Fermin Maeztu ITGko kurtso hauetako arduradunak-*nabaria izaten da klaseak euskaraz direnean, askoz atentzio gehiago paratzen bait dute*".

Kurtsoen mamia

Kurtsoan ematen diren gaien izenak ikusiz gero, nahiko astunak izan daitezkenaren inpresioa jasotzen da: Patologia, estrukturak, komertzializazioa, gestio ekonomikoa, legiazioa... ez dira seguraski baserrian egunero erabil-

tzen diren hitzak. Ramon Apezetxea beldur agertzen da, kurtsoak ez ote diren "teoriko" xamarrek. Hala ere, Fermin Maeztuk dioen bezala, "guk ezin diegu behiak nola jeitzen diren edo belarra pikatzen erakutsi, hori egunero egiten bait dute, baina bai bertze zenbait gauza interesgarri".

Gainera, astean behin klaseak utzi eta ateraldia egiten dute Euskal Herriko zenbait lekutara. Orain arte, Iparraldean azienta eta ahate haztegiak ikusten egon dira, Baigorri eta



Juani Santesteban, 28 urtetako Etxalartarra.

«**Baserri lanetarako baliagarriak dira kurtso hauek**»

“Irailean hasi eta apirila bitarte hementxe gabiltza.

Nik uste dut hemen matrikulatuta gauden gehienak, subentzioak galdetzeko intentzioarekin matrikulatu gara.

Baserriko lanerako baliagarria izanen dela pentsatzen dut eta horrela segituko dugu kurtsoa bukatu arte”.



M^a Jesus Juanena, 33 urtetako Urrotzartarra.

«**Ez genekien gauza aunitz ikasten ditugu**»

“Almazena bat egiteko idea dugu etxean eta erran ziguten kurtsoa eginez gero subentzio gehixiago kobratuko genuela.

Hemen erraten diziguten zenbait gauza badakizkigu, baina ez dakigun bertze gauza aunitz ere erakusten digute. Ni behinpein, arrunt gustora nago”.



Pello Etxandi, 32 urtetako Arraiotzartarra.

«**Hemen ikasitakoa eronek eraman behar duk praktikara**»

“Baserrian estruktura bat egiteko asmoa nikelako matrikulatu nintzen. Subentzioa eskatzeko diploma eskatzen ditek eta pixko bat ikasteko ere eman nian izena. Gauza teorikoak ematen ditugu, baina normalki, eronek praktikara eraman behar dituk. Gaur, behiak erditu ondoren nola bazkatu behar den ikasi diagu eta hori inportantea da. Gauza politikak ikasten ahal dira”.



Fermin Maeztu, ITGVkoa eta kurtsoetako arduraduna

«**Arrakasta haundia dute kurtsoek jende aldetik**»

“50 pertsonak izena ematea ez genuen inola ere espero. Datorren urterako ere bertze zenbaitzuek izena ematen hasi dira. Hala ere, irakasle euskaldunak lortzea planteatu beharra dugu, nabaria baita euskaraz ematen diren klasetan ikasleak askoz erneago ibiltzen direla. Klaseaz gain, irtenaldiak egiten ditugu, bertze tokitan beraiek bezelako gauduzaleek izan duten esperientzia ezagutzeko”.

Hazpamen, Bilbon Itsas-lur erakustaldira ere egin zuten bisita, baita Orreagako gasna kooperatibara. Datorren hilabeterako, ardi-ile-moztea neozelandes erara (ardia lotu gabe) nola egiten den ikasteko asmoa dute, horretarako prest legokeen artzairen bat

aurkituz gero. Beraz, guztia ez da teoria.

Ikasleak gustora

Ikasle gehienak subentzioen bila eman zuten izena, baina geroztik gustota daude bertan ikasten dutenarekin. Gehienak, 26, baztandarrak dira. Hamar bat Malerrekatik datoz,

7 Bortzirietatik, 4 Bertizaranatik, 2 Sunbillatik eta bertze horrenbertze Urdaubitik. Eskualdeko alderdi gehienetakoak, ageri denez.

Kurtsoaren arduradunak onartu duenez ez zuten inolaz ere espero hainbat jendek izena ematea eta

irakasle kopurua ezin izan dute egokitu.

Datorren urterako izena ematen hasiak dira, beraz, aurtengo arrakasta errepikatuko dela erran daiteke.

Testua: Aitor AROZENA
Arg: Joxemanuel IRIGOIEN

Zubietako Iñotik: “Heldu den urtean tortzen badere handiagoa kusteko prest etor dittezela”

Inork ez daki non ager daitekeen “eskandaloa”. Behar da, hori bai, “normalidadearen” mugak gainditu eta “orain arte ikusi ez dena” plazaratu. Are gehiago iñotitaz ari bagara.

Kasu honetan, zer izanen zen?

Ipurdiak?

Zubieta ia itun betidanik bat edo beste ikusi ohi da...

Mozorroen zakarkeria? Etxeko marka dugu eta harro gaude...

Usaia? Galanta zen, benetan... Ipurdia, kaka, birrikak eta barrenkik, erratzhisopoa... usaia, hortaz? Ez dut uste...

Eta ez dudalako jakiterik beste modu batez, mozorroak burutu eta gauzatu zituztekin bildu naiz.

Igandea dugu, ilunabarra. Izenak ez dira emanen, noski!



ttipi-ttapa. Zerbait berezia egon zen Iñoti astearte hartan?

M. Deus ez! Hemengo iñotik ez dira desfilek eta horrela...

ttipi-ttapa. Orduan, dena normala baldin bazen, zergaitik hainbeste komentario?

M. Kusi ta kritikatu duna badago, kusi eztulako penakin gelditu dena bada ere,... –dio batek; eta beste batek segidan– Jenderi etzaion gustatu edo gustatuta gelditu zen begira? – eta denak batera– Ez bazioten gustatu, zergaitik hainbeste fotografia? Nori

iten zioten irri? Lasterka ze kusterera joaten zien?

ttipi-ttapa. *Tira, tira! Arrakasta izan zenutela ukatzerik ez dago. Dena den, hainbeste fotografi, bideo eta TB kamara arituz eta inon ez da ikusi zuen argazkirik, ttipi-ttapan ezik. Zer da, fuertegia egiten zitzaieela?*

M. A, ez takit! Gu, pentsatu eta ateri, herriko iñoti autentikoan.

ttipi-ttapa. *Herrian egonen da bakarrenbat zuekinbat ez datorrena, ez?*

M. Ez, ez! Herrian arrot ongi kusi zan da! Eta kanpotarrak... entzima, datorren urtian tortzen badere, handiagoa kusteko prest tor dittezela!

ttipi-ttapa. *Heldu den urteko handiagoa, orduan?*

M. Zerbait zanen da, dudik gabe, ta ezta tiendako arropakin zanen... Gu arropa zaharrakin biltzen gara, jiturei eman gabe... zatez, zerbait handia zanen da... *-eta isilaldi baten ondotik-* Hemen astukin usatuak zan gara beti; lau hankakuk akitu dere, ta orain bi hankakuk *-dio batek, Egañari arrazoia emanez-*.

ttipi-ttapa. *Heldu den urtean etortzeko asmoa dutenei aholkuren bat, kontseiluren bat emanen zeniekete?*

M. Bai. Arropa onakin ez tortzeko, astegunekukin, asteguna baita. Larruzkoa eta bisonak ez kartzeko, portzikaso ere.

Elkarrizketa bukatutzat

emanez, guk ere badugu aholkurik: Iñotitara parte hartzera ala kaleratzen dena onartzera etor zaitezte, aurreritazirik gabe, heldu den urtean zer egonen den ez bait daiteke jakin! Aurten goa baino haundiagoa? akaso. "Listona", dena den, hagitz altua paratu dute aurtengoak.

Ez zen egon, dirudieenez gero, tradizioarekin lotutako mozorroketa baidzik! Eta, elkarrizketa egiten duenaren opinioeak deus gutxirako balio badu ere, mundiala izan zen, hain mundiala estraerritar haiek -V-tar bikotea, alegia-putzura botzeko okasioa galdu bait genuen. Haiek bai, haiek, eskandalosuk!

Ongi segi!

JUAINAS



Beti Gazte - Sicesal bigarren mailako afizionatuen txirrindulari taldea aurkeztu zen

Hilaren 14ean burututako «Lesakako Udala» sarian parte hartu zuten

AITOR AROZENA

Beti Gazte - Sicesal Pabellones Industriales, bigarren mailako afizionatuen txirrindulari taldea aurkeztu zen otsailaren 28an «Irungo Atsegina» elkartearen.

Talde honekin, eskualdean Baztandarra, Beratarra, Beti Gazte, Erreka eta Gure Txokoa txirrindulari taldeek, borts eskolekin, kadete eta jubenil taldeekin egiten duten lanari jarraipena eman nahi zaio afizionatu mailan.

Taldearen partaideak

Elizondoko Miguel Bajo eta Lesakako Gerardo Telletxea kirol zuzendarien ardurapean eta Nafarroako Federazioaren barnean, honako txirrindulariok arituko dira taldean, beraien herria eta iazko taldeak kontutan hartuz:

Koldo Alduntzin (Leitza-Caja Rural), Miguel Baraibar (Elizondo-Caja Navarra), Manuel Ganboa (Elgorriaga-Caja Navarra), Aitor Igoa (Lesaka-Beyena), Jose M^a Martinez (Lesaka-Caja Navarra), Iñaki Irigoien (Bera-Pacharan Zoco), Juan Sansiñena (Bera-Caja Navarra), Santi Aranburu (Beasain-Lancia), Angel Hernandez



19 eta 20 urte bitarteko Nafarroako eta Gipuzkoako txirrindulariek osatzen dute Beti Gazte - Sicesal bigarren mailako afizionatuen txirrindulari taldea

Arg: AITOR

(Beasain-Elektra), Aitor Zabaleta (Beasain-Elektra), Enrique Embid (Iruñea-Pacharan Zoco), Cruz Urabaien (Iruñea-Branik) eta Ander San Jose (Donostia-Kaixo).

Denboraldirako helburuak

Bigarren mailako afizionatuak direnez, txirrindulari guztiak 19 eta 20 urte bitartean daude, beraz, taldearen gaztetasuna nabaria da.

Aurtengoa, lehen denboraldia denez ez dute izugarrizko helbururik, baina bertze fitxaje pare batekin, Lehendakari txapelketa, Euskaldun txapel-

—“
Lehendakari, Euskaldun eta bertze zenbait txapelketetan parte hartu nahi dugu. Bidasoako Itzulian ere, behar bada”



ketaren zati bat eta Errioxa eta Soria aldean proba batzu egin nahi dituzte.

Honetaz gain, zenbait itzulitan parte hartzeko gonbitea jaso dute eta talde

teknikoa bakarren batean parte hartzeko aukerak estudiatzen ari da. Baita ere, Bidasoako Itzulian parte hartzea ilusio handia izanen zen taldearentzat.

ATLETISMOA

**Jesus M^a Calvo lesakarra,
2. Kamarero Laisterketan**

Bi urtez txapeldun izan ondoren, aurtengoan bigarren postuarekin konformatu behar izan du Jesus M^a Calvo lesakarrak, martxoaren 2an Donostian egindako Euskal Herriko


Kamarero laisterketan. Prueban, 700 metrotan zehar, bandeja batekin, zerbezaz betetako kopa batekin eta erdiraino betetako botila batekin laisterka egiten da.



TXIRRINDULARITZA

Aurtengo txirrindularien denboraldia hilaren 14ean hasi zen eskualdeari dagokionez. Lesakan Beti Gaztek antolatutako karrerarekin (Lehendakari txapelketarako baliaga-

ria). Hilaren 29an emanen zaio jarraipena Donezteben, lehen urteko afizionatuak bilduko dituen karrerarekin. Hau Erreka txirrindularien elkarteak antolatzen du.



**Bergara II eta Arretxe,
eskuz binakako txapeldun**

22-18 irabazi zieten Zezeaga eta Unanueri

Salvador Bergara Etxalartarra eta Fernando Arretxe Luzaidetarra (Baztanen pilotan ikasia) suertatu ziren eskuz binakako txapeldun, Gasteizko Ogeta pilotalekuan jokaturako finalean Unanue eta Zezeagari 22 eta 18 irabazi ondoren.

Modu honetan, 39 urte

dituen Bergara IIak, eskuz binaka lortzen duen hirugarren txapela eskuratu zuen, eta Arretxek berriz, bigarrena segidan, iazkoan Retegi Iirekin batera irabazi bait zuen. Bertzalde, Bengoetxea IVk txapelketan zehar egindako lana eskertu zuten bi irabazleek.

**Hamabostaldiko
jokaldiak**



Gurutze Otxoteko Lesakako kirolaria. Sokatiran, arpanan, eskubaloian eta hainbat kirolekin aritzen den neska hau larri egon da istripu baten ondorioz, baina badirudi poliki poliki hobetuz doala. Animo!



Eskuz binakako finalaren aintzineko iskanbilak. ETB, enpresario, pilotari eta bertze hainbat jenderen artean nahiko istilu izan zuten, pilotarien irudi eskubideak direla eta ez direla. Azkenik, gauzak bere onera etorri ziren.

MERKATU TTIKIA

Etxebizitzak

• **Donezteben**, 24m²ko lokala alokatzeko dute Ezkurra erretegiaren ondoan. 18.000 pza hilabeteko. 451518 ☎

• **Mediku** alargunak, Baztan-Bidasoaldean etxe bat alokatuko luke. Hilabeteko 35.000 pza artio ordainduko luke. 451518.

• **Oieregin**, Bertizkoaren ondoan pisua alokatzen da. Sukalde ekonomika, 2 logela, jangela, garajea eta terraza. 22.000 hilabeteko. 451518 ☎.

• **Baztan** aldean, ahal bada baserria edo bertzela pisua alokatu nahi nuke. 943-279894 ☎ (Eulali).

Lana

• **Donostian** fijo bezala lan egiteko neska behar da. Asteburuak libre eta jai egunetan orduren bat ere bai. Informazioa, 943-216435 ☎.

• **Neska** gazte bat eskeintzen da edozein lan egiteko Lesakatik hurbil. 450528 ☎.

Denetarik

• **Ekipoak** alokatzen dira udalentsat, bertsolarentzat, mitinetarako, etabar. Laia musika dendara deitu. 631059.

• **Lesakan** lokal bat traspasatzen da. Deitu 10tik 1etara eta 5etik 8etara 637410 ☎.

• **Lesakan**, lauburu bat galdu dut, J.M. inzialekin. Aurkitu baldin baduzue, mesedez deitu 637246 ☎.

• **Nafarroako** Herri Kirol Federazioak zapata-dendekin "Dunlop" zapatilak erosteko konbenioa egin nahi luke. 450900 ☎.

• **Artaldetik** 3 ardi falta zaizkigu. Ikusi zituzten azken aldia Etxalarko bentetan izan zen. Ikusi badituzu, deitu 943-429378 ☎.

Salerosketak

• **7 urteko** neskatxa batentzat bizikleta bat erosiko nuke. 631188 ☎.

• **Behiak** salgai. Batzuk ernari eta erditzeko puntuan bertzeak. 453106 ☎.

• **Autokargadora** Eu-

ropa markakoa salgai. 599045 ☎ (Pedro Jose).

• **Trial** motoa salgai. Montesa Cota 309, egoera oso onean. 637823 ☎.

• **Aluminiozko** bi bitrina, brontze kolorekoak salgai. Neurriak: 2 x 1,90 x 0,5 m. Baita mostradorea kajoiekin eta erakusteko bitrinarekin. 63 04 19 ☎.

• **20 ardi** beraien bildotsekin salgai Saldiasoko Masenea baserrian.

• **Artzai** zakurkumeak salgai. 504492 ☎.

• **Huqsvarna 430** - Enduro motoa salgai, 500.000 pztatan. NA-AC markakoa. 452286 ☎.

• **Bideo joko**en kontsola salgai, 208 jokurekin, 8.000 pztatan. 637372 ☎.

• **NA-G** matrikuladun 127 bat salgai. Egoera onean. 637141 ☎ (Karlos).

• **Gutti** erabilitako Cicle gitarra eta Caiman amplifikadorea salgai 40.000 pztatan. Interesatuak, 637948 ☎ deitu (eguerdian 1,30ak aldera).

Harremanak

• **Leitzako** Mirari Er-

bitiri: zorionak zure urtebetetze egunean (martxoak 26) eta ondo igaro eguna. Muxu haundi bat zure familiarren partez.

• **Leitzako** Iraitz Uriarterentzat: zorionak zure urtebetetzean (martxoak 25). Ea 13. urte hori guk desiatu bezain zorionsua izaten duzun. Asko maitatzen (eta batzutan aguantatzen) zaituzten batzuek. Nortzuk ote gara...

• **Rociorentzat** bere 18. urtebetetzean eta bere aita Peperentzat bere egunean, maitasun haundiz, Jabier eta amaren partetik.

• **Lourdes** Mendiburu-entzat: Zure urtebetetze egunean, ongi pasatu! Aliziaren partez.

• **Berako** Patxi Lazkanotegiri: Kasu, kasu... zahartzen ari haiz eta! Zorionak hire 24. urtebetetzean. Hire lagunak.

• **Amaiurko** Itziar Alemani: zure urtebetetzea (Martxoak 21) Erratzun ospatzea espero dugu, egunik egokiena hori baita. Zorionak! Zure lagunak.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: _____

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK _____

HELBIDEA _____

HERRIA _____ Tfnoa: _____

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188



KIWI BAZTAN, S. A.



MINDEGIA eta BULEGOAK:

Sutegia Etxea
31795 LEKAROTZ

☎ (948) 58 11 01

Fax-a: (948) 58 11 01

**FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN
ZUZENEKO SALMENTAK**

AMETS LIBURUAK

Liburu bildumen Banatzailea

Ikastola, eskola, elkarte,
kultur etxeetako
liburutegiak osatzeko
behar diren bilduma
guziak, prezio bereziekin

631267 tfnoan harremanetan jarri

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean
edo ate ondoan eta buruko mine maten
badazue hek ikusteak, abiso emanazue
Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezau-
tzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain
garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia
esperuan nago. Biher baino neretako gaur
hobiago.

CONSERVAS MARTIKO, S.A.

Ahatetan espezializatuak



Ahate-foi

Gibel-gizena

Urdai azpikoa

Ahate-hegalak

Ahate-izterrak

Tfnoa: (948) 63 07 07

BERA

ZURE MAHAIRAKO AHATERIK HOBERENA

IRAGARKI HAU 5.000 ETXETAN SARTU DA.

**ZUREA ERE SARTUKO DA
PUBLIZITATERAKO
ttipi-ttapa AUKERATUZ GERO.**



**ALMACENES
ETXANIZ, S.A.**

Lesakako
Iturria anaiak

☞ **ESKUALDEKO AUKERARIK HAUNDIENA**

GRES ETA AZULEJOETAN

☞ **AZKEN MODELOAK ERA GUZIETAKO PREZIOTAN**

Juan Arana, 3

Tfnoa: (943)

61 17 67

IRUN